



LEIOAKO FILM LABURREN XVII. LEHIAKETA



PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duten guztiek parte har dezakete.

MODALITATEA

Bideo-zintak zuzeneko grabazioak edo animazio-lanak izan daitezke.

GAIA

Gaia edozein izan daiteke eta lanek originalak eta argitaragabeak izan behar dute.

LANEN EZAUGARRIAK

Lanak DVD formatuan aurkeztu behar dira, euskaraz nahiz gaztelaniaz. DVDak gehienez 15 minutu iraun behar du.

LANAK AURKEZTEA

Lehiaketara aurkeztutako lanekin batera, oinarri hauekin batera doan inskripzio-orria ere aurkeztu behar da, behar bezala beteta eta gutun-azal itxi baten barruan. Inskripzio-orriaren ordean, parte-hartzailearen datuak (izen-abizenak, helbidea, jaiotze-data, posta-elektronikoa eta telefono-zenbakia) dituen agiria ere aurkez daiteke. DVD bakoitzean lanaren izenburuak agertu behar du. Parte-hartzaile bakoitzak bi lan aurkeztu ahal izango ditu, gehienez.

LANAK ENTREGATZEA

Lanak posta ziurtatu bidez bidali edo zuzenean entrega daitezke helbide honetan:

KULTUR LEIOA

Kultura Saila

Jose Ramon Aketxe plaza, 11 - 4. 48940 LEIOA (Bizkaia)

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea **2010eko urriaren 29an** amaituko da, 14:00etan.

EPAMAHAIA

Epaimahaia kultura, arte eta zinearekin zerikusia duten pertsonen osatuko dute. Epaimahaiak emango du lehiaketaren gaineko epaia, eta epai hori apelaezina izango da. Besteak beste, honakoak hartuko ditu kontuan:

- **Kalitate artistikoa**
- **Sormena**
- **Originaltasuna**
- **Maila teknikoa**
- **Produkzioa**
- **Kontzeptua**

EPAIA

Sari-banaketa **2010eko abenduaren 11n** izango da, **12:00etan**, Kultur Leioan. Epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek behar besteko kalitate artistikorik ez badute, epaimahaiak sariak eman gabe utz ditzake, lehiaketako mailari eusteko betiere. Era berean, beharrezkoak iruditzen zaizkion akzesit guztiak eman ahal izango ditu egokia dela uste badu. Kasu horretan, akzesita irabazten dutenek diploma jasoko dute.

SARIAK

Jarraian zehaztuta daude ezarritako sariak.

Egileek ezin dituzte bi sari irabazi.

1. saria (gaztelaniaz)	1.000 euro eta diploma.
1. saria (euskaraz)	1.000 euro eta diploma.
2. saria	700 euro eta diploma.
Herriko egileen artean lanik onena	400 euro eta diploma.

Herriko egile onenaren sarira aurkeztzen diren egileek erroldatze-ziurtagiria aurkeztu behar dute.

JABETZA

Leioako Udala geratuko da saritutako lanekin. Horrela bada, lanak erakutsi eta kopiak atera ahal izango ditu, eta inork ezin izango dio egile-eskubideak ordaintzeko eskatu.

Lanak Udaleren kultur ondare izango dira eta inork ezin izango ditu saldu edo erosi.

EMANALDIA

Saritutako lanak Kultur Leioako Auditoriumean proiektatuko dira, zine-forumaren programazioaren barruan, 2011ko urtarrilean.

LANAK ITZULTZEA

Epaia eman eta hurrengo 30 egunetan itzuliko dira saririk jaso ez duten lanak.

Antolatzaileek kontu handiz zainduko dituzte aurkeztutako lanak baina lanok galdu edo hondatzen badira, ez dute bere gain erantzukizunik hartuko.

OHARRAK

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak goitik behera onartzen direla esan nahi du.

Bidaltzen diren lanak bidean hondatu edo galtzen badira antolatzaileak ez du erantzukizunik izango.

INFORMAZIOA

KULTUR LEIOA

Kultur Saila

Jose Ramon Aketxe Plaza, 11 - 4
48940 LEIOA (Bizkaia)

Telefonoa: **946 072 578**

kultur@leioa.net

www.kulturleioa.com



IZENA EMATEKO TXARTELA

Gutunazal itxi batean bidali.

Izen-abizenak

Helbidea

P.K.

Herria

Lurralde Historikoa

Telefonia

Jaioteguna

E-maila

LEIOAKO FILM LABURREN XVII. LEHIAKETA

1. film laburra

Iraupena

2. film laburra

Iraupena

Datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 lege organikoaren 5. artikulua betez, jakinarazten dizugu inprimaki honetan sartuko dituzun datuak Kultura Saileko lehiaketaren fitxategian artxibatuko direla, helburua deitutako lehiaketako izangaiak ezagutzea dela, informazio-jasotzaileak Leioako Udaleko Kultura Saileko langileak eta arduradunak izango direla, eta fitxategiaren arduraduna Leioako Udala dela (Elexalde auzoa 1).